

## NAFARROAKO BAINU-EREMU NATURALAK

### Agua Saladako iturburua





Mota: Iturburua | Kokapena: Lizarra

Putzu hori betetzen da igeltsuz eta karbonatoz betetako akuifero batetik datorren urarekin. Beraz, gatz kontzentrazio handia du, eta ura termala da nolabait. Uraren temperatura konstantea da urte osoan (udan, 17°C-tik 18°C-ra), eta, beraz, eremu hori asko erabiltzen da urtaro guztietan. Tradizioaren arabera, urak sendatzaileak dira, batez ere larruazaleko gaixotasunetarako.

**Ekipamendua:** Ez dago komunik, baina badago ondoko udal igerilekuetan.

**Sarbidea:** Lizarran sartuta, udal igerilekuetara joan behar da, Ega ibaiaren eskuineko ertzean, Los Llanos parkearen aurrean. Igerilekuak ezkerretara utzita, askaldegi txiki bat zeharkatuko dugu, eta handik 80 bat metrora bainu-eremua dago.



[Nola iritsi](#)